


## Gazteen erdiek sare sozialak izan dituzte hauteskundeei buruzko informazio-iturri

**Portzentaje hau populazio osoarenaren bikoitza da**

Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) kaleratutako datu batzuk aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datuok irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EAEko gazteek izandako portaerari buruzkoak dira, "[2016ko Hauteskunde Autonomikoen ondoko inkesta](#)" izeneko txostenetik atera dira, eta EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteei dagozkie.

Ikerketa horren emaitzen arabera, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 59k interes handia edo nahikoa interes izan zuten irailaren 25ean izandako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

2009tik nahikotxo handitu da hauteskundeei buruzko interesa gizartearen baitan, batik bat gazteen artean. Interes mailarik handiena 2015ean izan zen, gazteen % 70a oso edo nahiko interesatuta egonik.




Euskadiko gazteen artean, 2016ko Hauteskunde Autonomikoei buruzko interesa 2012koek piztutakoa baino zertxobait handiagoa izan da.

Azken hauteskunde hauek askotan izan direla solasgai lagunekin diote gazteen %19k, populazio osoarena baino gehixeagok (% 16).

Alderdiren baten programa edo propaganda irakurri zutela diote % 59k, biztanleria osoaren proportzioaren gaineratik (% 51), eta gazteen % 64k hautagaien baten elkarriketa edo hautagaien arteko debatea ikusi edo irakurri zutela baieztatu dute. Hauen ehunekoa populazio osoarena baino apur bat txikiagoa da (% 69).

Gazteen eta populazio osoaren arteko alderik nabarmenena, Hauteskunde Autonomikoen jarraipenari dagokionez, Internet eta sare sozialen erabilpenean aurkitzen dugu. Gazteen erdiek baino gehiagok (% 55) Internet eta sare sozialak erabili dituzte hauteskundeei buruzko informazio-iturri, populazio osoaren batez bestekoa bikoiztuz (% 28).



Bukatzeko, esan dezakegu hamar gaztetik seik (% 62) positibotzat jo dituztela hauteskunde hauekiko emaitzak. Hemen, populazio osoarena (% 68) baino ehuneko baxuagoa agertu dute gazteek.